

Hilozoismoa

ordea, erraz antzematen da "izan" eta "gizaki"aren bi ikuskera desberdin hauen desegokitasuna.

4. Gaur eguneko kristau-teologiak, gizakiaren biziraupenean sinetsi arren, berau hilezkortasunaren bidez interpretatzearen aurka agertzen badaki. Zeren hilezkortasunaren pentsaerak mendeetan barrena kristau-eskatologia baldintzatu badu ere, gaur antimoderno eta antibiblikotzat jotzen bait da. Zergatik? *Dualismoarengatik lehenik gizakia arimarekin berdintzen duelako, goitik behera gorputz nahiz arima den bitartean; bigarrenik, heriotzaren eskandalua gutxietsi eta gizakiaren mugatasuna zapuztuz suntsiezina-
ren plantak egiten dituelako; azkenik, birbiztearen kristau-zentzu jatorra bere onetik erauzten duelako, Jainko ahalguztidunaren berarizko ekintza eta dohain dena, jakineko datu antropologiko bihurturik.

Hilezkortasuna arazo filosofikoa den neurrian, *antropologia filosofikoari dago-kiona da. Irudikeriaz ariko ginateteke, ordea, uste izango bagenu, alegia, balio orokorreko zenbait premisatetik nahitaez eratortzeko zerbait badela. Ez horrelakorik. Antropologiaren barruan nahiko autonomo agertzen da gai hau, disziplina bat baino gehiagoren hariak gurutzatzen bait dira berton, teologia barne. Gero, auzia ebaztean, kontutan hartzekoa da *"mundu-ikuskeraren ikuspegi orokor eta sistematikotik sortzen diren *interes berezien pisua, azken finean interes horiek existentzialki funtsaturik bait daude. Arazo horren aterabidea gaur egun *zentzuaren arazoari lotzen zaio analitika existentzialaren barrutian. Gizakiaren zentzu-
-ebazpen hori gizabanakoari eta pertsonarteko harremanen osotasunari begira egin behar da. Izaki erdibitu honen zentzu-arazoa, halaber, gorputz-izpirituen eta teoria-praxien arteko tirabirekin gurutzatzen da, eta haren irtenbidea azkenengo hauen irtepretazio be-
-reziekin bat doa.

Xabier Andonegi

Hilozoismoa

Mundua eta materia bera bizidun direla dioen doktrina.

Hinduismoa

Erljioen historiari eta sailkapenari dagokie bereziki kontzeptu hau, eta ez filosofiaren historiari. Vaidika Dharma edo Erljio vedikoa bezala, *Veda-tan oinarrituriko erljio-mugimendu bezala ulertzen da, hain zuzen ere.

Goratzarre vedikoekin batera, ordea, hartu behar dira *Upanishad idazkietako es-

pekulazio filosofikoak ere. Hauek eman diote oinarria eta sorrera India-ko hainbat filosofi eskolari.

Hinduismoak bere oinarri metafisikoa du, hasieran hizkera mitologikoz emana eta gero-
ra alde batez behintzat kontzeptu filosofiko-
koz Upanishad liburutan azaldua. Azalpenok beren desberdintasunak izanik ere, guztien oinarrian batasun bat eta muin koherente bat nabari da.

Filosofiaren historiarentzat, beraz, hinduismoa ez da sistema edo eskola konkreturen bat, eta zera biok adierazten ditu: Veda eta Upanishad-ak oinarritzko testu arauemaitetzat hartzen dituzten filosofi eskola edo *Darsana astika edo ortodoxoen multzoa, batetik; eta, bestetik, eskola guzti horien oinarrian dagoen *mundu-ikuskeraren eta kontzeptu-multzo orokorra eta funtsezkoa.

Hinduismoarentzat Egia absolutua eta orokorra da; beraz, horren edozein ikuspegi bidezkoa da; Egia horretatik kanpo gelditze-
rik ez daukalako. Eskola bakoitzak bere metodo berezia dauka, Egia Osora hurbiltzeko. Egia absolutuaren eta fenomenoaren esperientzia hutsaren tartean egienaren eta errealitatearen hainbat maila daude.

Jainkozko Izan bakarra (*Brahman) airtortzen du hinduismoak: Munduaren sorburua dena eta hainbat jainko banakotan era desberdinez agertzen dena. Eta gizakiak ikusten edo sumatzen duen kosmosa Izaki absolutuaren proiektzioa da. *Makrokosmosa da.

Mikrokosmosa, gizakia, makrokosmosaren eraberako eta irudikoa da. Kosmos handiarentzat den "Ni" absolutua (Brahman), kosmos txikiarentzat "Ni" banakoa da (norberaren *atman, *purusa): hau da, gizakiaren zera betierekoa, aldaezina eta absolutua. Brahman-en eta Atman-en arteko harremana desberdinki azaltzen du filosofi eskola bakoitzak. Era berean, kanpora sumatzen dugun munduaren eta geure barrura sumatzen dugun geure banakakoaren artean paralelismoa eta kidetasuna dago.

Gizakia munduaren *patu historikoaren barruan gertatzen da; makrokosmosa etengabe-
ko degradazio/kreazio-zikloen menpe dago, eta bi faseren arteko aroak munduaren bizialdi (kalpa) bakoitza zertzen du. Ziklo horren araberak gertatzen da gizakiaren *berraragiztapen-prozesu ziklikoa, zeinetatik askatzea eta *moksa egoerara heltzea bait da atman banakakoaren azken helburua. Bizialdiz bizialdi eta berraragiztapenez berraragiztapen, norbanakoak bere lehenagoko bizialdiek utziriko *karma edo ondorio txarrak gainditz joan behar du, horretarako berari dagoz-
kion bidea eta teknika (*yoga) aukeratzu.

Filosofia etikoaren oinarrian *kastekiko pentsaera eta egitura erlijioso eta soziala dago. Horrek determinatzen ditu gizakiaren betebeharrak, gizartean, senitar-tean, etab. Sistema honen barruan, bizitzako lau helburu hauek gidatzen eta bideratzen dute gizakiaren jokabidea: atseginak (kama), irabaziak (artha), betebeharrak edo bertuteak (*dharma) eta askapenak (moksa).

Erljioa da, beraz, hinduismoa; baina bada organizazio soziala ere, kasten arabera eraikia. Erljioa eta organizazio soziala oso lotuak daude, nahiz eta berdintzerik ez egon.

Baina hinduismoa bada filosofiazko kontzeptu-multzoa ere, erlijioaren eta erakunde sozialaren azpian dagoena.

Karlos Fiel/Paulo Agirrebaltzategi

Hipatia

Filosofia landu duten emakumeetan beraren izena dator lehena. Zirilo apezpikuaren aurka konspiratu zueneko salakuntza leporatu ondoren, kristau-talde batek *Alexandria-n harrikatua hil zen 415ean. Alexandria-ko Eskolako neoplatonikoa izan zen eta teurgierako joerarekin nahastuta dago.

Hipodamo Mileto-koa

K.a. V. mendeko etxagilea eta filosofoa, pitagorismoak aldeztuak. Aristotele-k berorren ideia politikoak kritikatu zituen. "Polis" a zenbakizko erlazioen bidez antolatzeko proposamena egin zuen Hipodamo-k.

Hipolito Erromakoa

San Ireneo-ren ikaslea izana, 160-236 urte inguruan bizi izandakoa. Honen ustez, gnostizismoak greziar filosofian eta Ekialdeko doktrinatan du bere sorburua eta ez kristau-tradizioan. Obra: *Philosophoumena*, 230.

Hipostasia

Hitzez hitz, azpian dagoena; sostengu dena. *Izatearen baliokide bezala erabilia izan ohi da, benetako errealtatearen zentzuan. Plotino-k hiru *substantzia adigarri hauek izendatzeko erabili zuen: Bata, Izpiritua eta munduko Arima; kristau-teologian, berriz, Hirutasuneko pertsonak deitzen dira horrela. Eskolastikoentzat, hipostasia independentea den substantzia bat da, biziduna izan ala ez, zuzena izan ala ez; zuzena dena, hipostasia eta *persona gauza berbera dira.

Hipotesia

Platon eta Aristotele-ren arabera, ondorioak ateratzeko zer suposatuzten eta zer baieztatzen den, hura da hipotesia. *Axiomak, hipotesiaren aldean, lehen egia horren nabaritasuna darama; hipotesia, berriz, postulatatu egiten da.

Aro Modernoko zientziaren teorian hipotesiak garrantzi handia hartu du. Zientziak baztertu egiten ditu hipotesi metafisikoak beroriek arrazoi alferraren ihesbidetzat jotzen diren heinean (Kant); baina ez ditu gaitzesten fenomenoekin harreman estuan dauden esperientziako objektuen ahaltasuna ulerterazteko balio duten hipotesiak. Bigarren hipotesi-mota honek geroago egiaztatuko beharko diren *gertakarien aitzinapen bezala jokatzeko da.

Ik. Egiaztapena.

Hippia Eli-koa

K.a. V. mendekoa. *Sofisten lehen belarrialdikoa, Antzinatean bere jakintza entziklopedikoagatik ospetsua izan zen; uste zenez, zientzia guztiak zekizkien eta arteak oro lantzen zituen. Platon-ek dioenez, Hippia eta Protagora-ren, naturaz ona denaren eta legearekin ados dagoenaren artean funtsezko desberdintasuna ezarri zuen.

Hirugarrena baztertea

Pentsamendu arrazoitua ahalbidetzen duten lege nagusietatik bat da "hirugarrena baztertea" deritzana: A eta ez-A artean besterik ez, dio; beste edozer ez dagoela alegia, dena A ala ez-A baita (Pv $\bar{\Gamma}$ P): "Hau hitzegia da ala hitzegia ez den beste edozer", hain zuzen ere. Bi proposizio kontraesankor emanik, batak ala besteak egia izan behar duela adierazten da, ezin daitezke biak faltsuak izan.

Historia

Errealtatearen denborazko eboluzioek eta munduko gertakariak osatzen dute historia. Historiak ez du bakarrik gizakiarena eta gizartearena barneratzen, baita ere, XIX. mendetik aurrera sakonago aztertu denez, naturarena, animaliena, landareena, etab. Historiaren eginkizuna bera aldatu da, batez ere historiari buruzko gogoeta filosofikoen edo historiaren filosofiaren eraginez.

Historiaren ikusmoldeak, beraz, mota desberdinetakoak izan dira munduko gizarte eta herrietan. Orain dela gutxi arte, historiagileek iharduera datuak kronikaren arabera metatzera mugatzen zen, datuen arabera gertakariak pilatzen zirelarik eta gehienetan